BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4192

EBAZPENA, 2016ko uztailaren 27koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzko urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuaren esparruan 2015ean emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitara emateko dena.

Urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei ematekoak diren diru-laguntzak ezartzen ditu.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko irailaren 9ko aginduaren bidez, urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretu horretan araututako laguntzen deialdia egin zen 2015. urterako.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluko 2. ataleko bigarren paragrafoan aurreikusitakoarekin bat (dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onetsi zuen), eta, ebazpenak banan-banan jakinarazi behar badira ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira agindu horren babespean emandako diru-laguntzen kopuru osoa eta onuradunen zerrenda.

Hori guztia dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzko urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuaren esparruan 2015ean emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematea. Honekin batera, ebazpenaren eranskina doa.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 27a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
IKERNE ZULUAGA ZAMALLOA.

ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzko urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuaren esparruan 2015eko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda.

Onuradunak	Laguntza eurotan	LGENF	Eusko Jaurlaritza
Harakai	200.000,00		200.000,00
Basatxerri	100.000,00	80.000,00	20.000,00
Latxaesnea	63.477,70	50.782,16	12.695,54
	363.477,70	130.782,16	232.695,54